

EAEko IRAKASLEAK

LANPOSTUEN ZERRENDA (LZ/RPT)

Behin betiko lanpostuen zerrendak atera dituzte [Hezkuntzako web orrian](#).

LEKUALDATZE-LEHIAKETA

Lanpostuen proposamena [Hezkuntzako web orrian](#) eskegi dute, irakasleena eta ikuskariena.

Lakuatik jasotako azken berriak (kontuan izan aldaketak egon daitezkeela):

1. EPE 2022. IRAKASLEEN MEREZIMENDU-LEHIAKETA

2022ko merezimendu-lehiaketa: Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten EPE

- Deialdia laster argitaratuko dute.
- Hamar espezialitate hauetan 180 lanpostu inguru aurreikusten dira.

2022ko merezimendu-lehiaketa (gainerakoak)

- Epaimahaikideen zozketa egin da, abenduaren hasieran epaimahaiak eratuko omen dira. Araban eta Bizkaian abenduaren 12an lanean hasteko asmoa dago eta Gipuzkoan urtarrilean ekingo diote. Epaimahai bakoitzak dagozkion merezimenduak barematu ahala argitaratuko ditu; horregatik, espezialitateen artean, emaitzen argitaratze-epari dagokionez, ezberdintasunak egongo dira.
- Hezkuntza Sailaren aurreikuspenaren arabera, hautatuen behin betiko zerrenda maiatzean aterako dute, baina izendapena irailetik aurrera izango da (irailaren 30a arte uko egiteko epea egongo da).

2. EPE 2023. ARRUNTA ETA EZ BAZTERTZAILEA

- Aurreikuspena: abenduan deialdia egin eta hurrengo maiatzetik aurrera izenematea (merezimendu-prozesuetan norbera hautatua izan den edo ez jakin ondoren). Azterketak udazkenean izango lirarteke (ez daukate argi zein hilabetetan).
- Bi modalitateak egun edo asteburu berean egitea aztertzen ari dira.
- Zein kidegotan?:
 - EPE ez baztertzailean ("biguna"): Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan, Musikako eta Arte Eszenikoetakoan (194 lanpostu inguru txanda irekian eta desgaitasuna dutenentzako erretserba-txandan).
 - EPE arruntean: Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan, Arte Plastikoetako eta Diseinukoan (1810 lanpostu inguru txanda irekian, desgaitasuna dutenentzako erretserba-txandan eta gorako maila batean sailkatuta dagoen irakasleen beste kidego batera sartzeko prozeduran).

NAFARROAKO OPOSIZIOEN PROZESUAK: lau deialdi

[Merezimendu bidezko EPE](#)

[Merezimendu bidezko EPE- PAI](#)

[Oposizio-lehiaketa](#)

[Oposizio-lehiaketa-PAI](#)

**AZAROAK 25
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA!!!**

www.steilas.eus